


Artilea ere kontrolpean

Azken urteotan garrantzi itzela eman zaio janariaren kalitatea kontrolatzeari. Joera horren adibide ditugu Euskal Herriko merkatuetan labela itsatsita topa daitezkeen produktuak, hala nola, base-



Zeelanda Berrian artilearen kalitatea ere kontrolatu nahi dute. Eta lehen ez bezala, orain ordaindutakoa kalitatearen parekoa izango da.

erriko oilaskoa, Arabako patata edota Gernikako piper ezagunak. Joera hori ez da bakarrik gure artean nagusitu eta hemendik kanpo ere, Zeelanda Berrian esaterako, kexu dira kontrolaz. Eta bertan, janariak ezezik, artilearen kalitatea ere kontrolatu nahi dute. Orain arte artile on zein txarraren truke ordainbera jasotzen zuten artzainek eta horregatik, ez zuten grina berezirik

agertzen kalitatea zaintzeko. Aurrerantzean ordea, gobernuaren aginduz, ardilarro oro eskannerretik pasazaz kontrolatuko dute. Teknologia hori garatu duten injineruen hitzetan, ardilarroa laser izpiek arakatuko dute eta hiru irudi osagarri lortuko dituzte. Irudi bakoitzak ardilarroaren akats-mota desberdinak aztertuko ditu,

hala nola, zulotxoak, orbainak edo burrukaren seinale diren fluoreszenzia-guneak. Prozesuak konplexua badirudi ere, laser izpien egitekoa oso sinplea da: giza ikusmenak hutsean atzeman ezin dituen akatsak makina bidez detektatzea, alegia. Pantaila bakar batean hiru irudiak batuko dira eta ikuskeriak ardilarroa sei segundotan arakatu ahal izango du. Ondoren, laser iz-

piek emandako epaiaren arabera, dagokien kalitate-labela ipiniko zaie. Aurrerantzean beraz, Zeelanda Berriko artzainek gogotik egin beharko dute lan ardilarroaren onena lortzeko, lehen ez bezala, orain ordaindutakoa kalitatearen parekoa izango baita.

Morse kodea baztertu?...

Irratizaleak zeharo aztoratuta dabilta azken aldian. Gaur egun, mundu osoko irratizaleek morse kodeari buruzko azterketa gainditu behar izaten dute, amateurrentzako irradi-frekuentzien eremua erabiltzeko. Dirudenez, Britainia Handiko eta Zeelanda Berriko gobernuak morse kodea jakiteari ez diote baliogarritasunik ikusten eta azterketa kentzeko nahia adierazi dute eta horrek, noski, berebiziko nahaspila sorrarazi du.

Agian, bi gobernuak 1830ean Samuel Morsek asmatu zuen kode erabilgarria zaharkitua gelditu dela iruditu zaie, baina irratizaleentzat kode telegrafikoak oraindik abantailak dituela begi-bistakoa da; mezua bidaltzeko zein jasotzeko aparatuak oso merkeak izateaz gain, morse-sistemak leku gutxi behar baitu irradi-espektroan. Erraztasun horiei esker, gau egun hirurogei milioi irratizaleek mezuak distantzia luzetara bidaltzeko maiz erabiltzen dute kode hori.

Proposamen berria dela eta, irratizaleen artean aldeko zein aurkako ahotsak altxatu dira. Bartzuren ustez, morseko azterketa kenduko balute, HF-n (goi-frekuentzian) dituzten bederlatzi bandek gainezka egingo lukete, irratizale gehiagoren artean banatuko baitute banda-kopuru berbera.

... eta balbula berreskuratu?

Aurrerapenak aurrerapen, Estatu Batuetan atzera-pausoa eman dutela dirudi. Etxeko tresna elektronikoetan transistorearen erabilera ugaldu zenean, balbulak ekoizten zituzten lantegi askok itxi behar izan zituen bere atea. Orain, berriro hasi dira enpresak balbulak egiten eta horren "errudun" goi-fidelitateko aparatuzaleak dira, balbularen alde gogor ihardun baitute azken urteotan.

Musikazale horiek diotenez, balbulek transistorek baino kalitate askoz hobea eskaintzen dute. Esaterako, balbulak seinale oso kargatuak gradualki apaltzen ditu eta transistoreak aldiz, seinale horiek kolpetik moztzen ditu.

Agidanez, goi-fidelitateko aparatuzaleen ahotsak lortu dute azkenean oihartzunik.

